

**1/2020 INSTRUKZIOA, MARTXOAREN SEKOA, KONTRATAZIO PUBLIKOAREN A HOLKU-BATZORDEARENA.****HARTZAILEAK: SAILETAKO ZERBITZUETAKO EDO KUDEAKETA EKONOMIKOKO ZUZENDARITZAK, ERAKUNDE AUTONOMOETAKO ZUZENDARITZAK, EAE-KO SEKTORE PUBLIKOKO GAINERAKO ERAKUNDEETAKO ZUZENDARITZA-ORGANOAK, KONTRATAZIOA SUSTATZEN DUTEN UNITATE EDO ZERBITZUAK****XEDEA: DATU PERTSONALAK ARGITARATZEA KONTRATAZIO PUBLIKOA EUSKADIN PLATAFORMAN**

Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoaren kontratazioaren araubideari buruzko uztailaren 27ko 116/2016 Dekretuaren 28. artikulua ezartzen duenez, eginkizun hau bete behar du Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordeak: «Kontratazioaren alorrean egokitzat hartzen dituen arauak, zirkularrak, jarraibideak edo gomendioak prestatzea eta proposatzea, dagozkion eskumenen eremuan».

Kontratazio publikoko prozeduren kudeaketan datu pertsonalak babesteko araudia aplikatzeko moduari buruz sortu diren zalantzak kontuan hartuta, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoko Datuak Babesteko ordezkaririk gorrirako gomendioekin bat etorrita, jarraibide hau ematen da.

JARRAIBIDEAK**LEHENENGOA.- Pertsona fisiko lizitzaile, esleipendun edo kontratistei buruzko informazioa argitaratzeari buruz.**

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016/679 (EB) Erregelamenduak, datu pertsonalen tratamenduari dagokionez pertsona fisikoen babesari eta datu horien zirkulazio askeari buruzkoak (Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra) –aurrerantzean DBEO–, pertsona fisikoen oinarrizko eskubide eta askatasunetara hedatzen du babesa, 1.2 artikuluan ezartzen den bezala, eta, bereziki, datu pertsonalak babesteko eskubidera.

DBEOk honela definitzen ditu datu pertsonalak 4.1 artikuluan: «*pertsona fisiko identifikatu edo identifikagarri bati buruzko informazio guztia; pertsona fisiko identifikagarria da zuzenean edo zeharka, eta batez ere identifikatzaile baten bitartez, identifika daitekeen pertsona oro; identifikatzaile hori izen bat izan daiteke, identifikazio-zenbaki bat, kokapen-datuak, online identifikatzaile bat edo pertsona horren nortasun fisikoari, fisiologikoari, genetikoari, psikikoari, ekonomikoari, kulturalari edo sozialari buruzko elementu bat edo gehiago*».



Beraz, eskuzko sinadura —errubrika— eta pertsona fisikoen izen-abizenak datu pertsonalak dira. Horrek esan nahi du guztiz aplikagarriak direla bai DBEO, bai Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa (aurrerantzean DPBELO).

Bereziki babestutako datuak ez direnez, haien publizitatea egin ote daitekeen haztatu behar da, kontuan hartuta datu horien gaineko interes publikoa eta datu pertsonalen titularren eskubideak. Bestela esanda, bi eskubideak orekatu behar dira; alegia, datu pertsonalak babesteko eskubidea eta lizitazioan norke parte hartu duen edo esleipenduna nor izan den jakiteko eskubidea.

Datuen tratamendu hori DBEOren aginduari egokitzen zaion egiaztatzeko, DBEOren 6. artikulua aztertu behar da; izan ere, aurreikusitako arrazoi legitimatzailearen batean oinarrituta egon behar du datu pertsonalen tratamendu orok:

«1. Tratamendua zilegia izango da soilik baldin eta baldintza hauetako bat, gutxienez, betetzen bada:

a) Interesdunak bere datu pertsonalak tratatzeko adostasuna eman badu helburu zehatz bati edo gehiagori begira.

b) Tratamendua beharrezkoa bada interesduna parte den kontratu bat gauzatzeko edo interesdunaren eskariz kontratuaren aurreko neurriak aplikatzeko.

c) Tratamendua beharrezkoa bada tratamenduaren arduradunari aplikagarria zaion lege-eginbeharra betetzeko.

d) Tratamendua beharrezkoa bada interesdunaren edo beste pertsona fisiko baten bizi-interesak babesteko.

e) Tratamendua beharrezkoa bada interes publikoaren izenean edo tratamenduaren arduradunari esleitutako botere publikoen izenean burututako eginkizun bat betetzeko.

f) Tratamendua beharrezkoa bada tratamenduaren arduradunak edo hirugarren batek bilatzen dituen interes legitimoak erantzuteko, non eta interes horien gainean ez dauden datu pertsonalen babesa eskatzen duten interesdunaren interesak edo oinarritzko eskubide eta askatasunak, bereziki interesduna haur bat.

1. zenbakiko f) letran xedatutakoa ez zaio aplikatuko agintaritza publikoek beren eginkizunetan dihardutela egindako tratamenduari».

Legitimazio-oinarri horietatik planteatu daitezke ea tratamenduek lekurik izan dezaketen interes publikoko kasuan. Eskuarki, tratamenduaren oinarri juridikoa interes publikoaren alde edo botere publikoen alde egindako eginkizun bat denean (administrazio publikoetan maiz gertatzen da), lege-mailako arau batek esleitutako eskumen baten ondorioa da.

Izan ere, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legeak (SPKL, aurrerantzean), zeinaren bitartez egiten baita 2014ko otsailaren 26ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014/23 (EB) eta 2014/24 (EB) Zuzentarauen transposizioa Espainiako ordenamendu juridikora, honako hau ezartzen du: esleipenen eta kontratazioen datuak argitaratzeko betebeharra, gardentasuna eta sarbide publikoa bermatzeko.

Hala, SPKLren 63. eta 154. artikuluetan aipatzen da esleipendunen datuak nahitaez argitaratu behar direla kontratatzailearen profilean, eta SPKLren 346. artikuluan betebeharrak bera agertzen da Sektore Publikoko Kontratuen Erregistroari

dagokionez (gure autonomia-erkidegoan, Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratuen Erregistroa, "Revascon").

Argitaratu beharreko informazioari dagokionez, besteak beste, esleitutako kontratuen oinarriko datuak agertzen dira, eta horietan esleipendunaren nortasuna agertuko da. Bistakoa denez, esleipenduna pertsona fisikoa bada, haren datuak argitaratuko dira. Publizitate hori, gainera, koherentea da Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legearen 8.1.a) artikuluan adierazitakoarekin, zeinak ezartzen baitu kontratazio publikoaren esparruko gardentasuna dela-eta esleipendunaren nortasuna jaso behar dela.

Kasu horietan, hainbat araudi kontrajarri ditugu: datuen babesaren arloko araudia eta kontratazioari eta gardentasunari buruzko araudiak. Kasu honetan, datuen tratamenduan konfidentzialtasun-betebeharra ezin da lehenetsi; aitzitik, sektore publikoko erakunde kontratatzaileen gardentasun-betebeharra lehenetsi behar da. Azken finean, herritarrek baliabide publikoen gastua kontrolatzeko mekanismoa da publizitate hori.

Hala ere, leheneste hori ez da absolutua. DBEOren 5. artikulua datuen tratamenduari buruzko printzipioak aipatzen ditu, eta ezartzen du datu pertsonalak egokiak, bereizleak eta beharrezkoak izango direla tratamenduaren helburuei dagokienez ("*datuen minimizazioa*"), eta tratamendua zilegia, leiala eta gardena izango dela interesdunari dagokionez ("*zilegitasuna, leialtasuna eta gardentasuna*").

Kontratua formalizatzen denean enpresa batekin —kontratista bihurtzen diren esleipendunak—, uste dugu izen-abizenak bere IFZari lotu behar zaizkiola, antzeko izenek nahasmena sor dezaketelako edo izen komertzialak erabiltzeak akatsak sor ditzakeelako, eta, hain zuzen ere, indarrean dagoen Sektore Publikoko Kontratuen Legearen bidez, kontratazio-prozedurei publizitate handiagoa eman nahi zaie. IFZren bidez identifikatzeak bermatzen du zehatz-mehatz jakitea esleipendun nor izan den. Azken finean, publizitate horren xedea da, hain zuzen ere, jakitea nork egiten dituen obrak edo nor arduratzen den administrazio publikoaren zerbitzuez edo hornidurez, trukean, jatorri publikoko diru-kontraprestazioa jasota. Gainera, IFZ elementu bakarra izan daiteke norbait behar bezala identifikatzeko, pertsona batek baino gehiagok izan baititzake izen eta abizen berberak oso arruntak direlako.

Are gehiago, SPKLren III. eranskineko 6. atalean adierazten da zer informazio jaso behar den kontratua formalizatzeko iragarkietan. 12. puntuan berariaz aipatzen dira esleipendunaren IFZa eta izen-abizenak.

Eta, aurreikuspen hori nahikotzat jo ez, eta ulertzen da, halaber, garrantzitsua dela gogoeta egitea pertsona fisiko hori "enpresatzat" hartzeko aukerari buruz, DBEOK bermatutako babesa baztertze aldera. Azken batez, "*enpresa*" esaten zaio *jarduera ekonomiko batean aritzen den pertsona fisiko edo juridiko orori, haren forma juridikoa edozein dela ere, jarduera ekonomiko bat erregulartasunez egiten duten sozietate edo elkarteak barne*>> (DBEOren 4. artikulua, 18. definizioa). Beraz, pertsona fisiko bat ere enpresatzat har daiteke.

Hala ere, argitalpenari buruz egoki iritzitakoa alegatzeko aukera ematea komeni da beti, SPKLn jasotako argitalpenari lehenetsi beharko litzaiokeen inguruabarrik balego.



Hala ere, beste erantzun bat eman behar zaie prozeduran parte hartu arren prozedura arrakastaz amaitzea lortu ez duten lizitatuzaileei. Kasu horietan, ez du zentzurik xehetasunez jasotzeak bere identifikazioa, bere parte-hartzetik ez baita atera nahi zuen eskubidea, eta ez baita kontratu-harremanik hasi agintari adjudikatzailearekin. Horregatik, uste dugu nahikoa izango litzatekeela izen-abizenak jasotzea SPKLren 63.3.e) artikulua betetzeko, hau argitaratuko dela adierazten baitu: <<prozeduran parte hartu duten lizitatuzaileen zenbakia eta identitatea>>.

BIGARRENA.- Pertsona, entitate edo enpresa lizitatuzaile, esleipendun edo kontratisten ordezkari buruzko informazioa argitaratzea.

SPKLren 154. artikulua xedatzen duenez, kontratuen formalizazioa, dagokion kontratuarekin batera, kontratuzailearen profilean argitaratu behar da, eta erregulazio harmonizatuko kontratuen kasuan, formalizazioaren iragarkia Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialean (EBAO) ere argitaratu beharko da.

Zalantza da, beraz, formalizazio horrek nahitaez barne hartzen ote duen lizitatuzaile ordezkari duen pertsonaren izen-abizenak eta NANA argitaratzeko betebeharra.

Manuaren hitzez hitzeko idazketak –SPKLren 154. artikulua– hauxe adierazten du: <<1. Kontratuen formalizazioa, dagokion kontratuarekin batera, hamabost eguneko epea baino lehen argitaratu beharko da, [...]>>, baina artikulua horrek berak honako hau ere aurreikusten du 7. apartatuan: <<Kontratuaren sinadurari buruzko datu jakin batzuk argitaratu gabe eduki ahalko dira, baldin eta uste bada, espedientean behar bezala justifikatuz, informazio hori zabaltzea eragozpena izan daitekeela arau bat aplikatzeko, edo interes publikoaren aurkako gerta daitekeela [...]>>.

Beraz, SPKLk berak dauka xedaturik kontratuaren alderdi jakin batzuk ez direla argitara emango. Horri dagokionez, adierazten da kontratua egiteari buruzko datu jakin batzuk ez argitaratzeko aukera egongo dela, baldin eta, espedientean behar bezala justifikatuta, uste bada informazio hori zabaltzeak arau baten aplikazioa oztoka dezakeela.

Arau hori, hain zuzen ere, DBEO izan daiteke. Lehen adierazi den bezala, datuak minimizatzeako printzipioak (DBEOren 5. artikulua) eskatzen du tratatutako datu pertsonalak egokiak, bereizleak eta beharrezkoak izatera mugatuak izateko, tratamenduaren helburuei dagokienez.

Kontratuaren formalizazioa eta kontratazioa egiteko baldintzak eman behar dira argitara. Behartutako subjektuei dagokienez, benetan garrantzitsuena kontratista nor den jakitea da. Pertsona fisikoa bada, ezingo da saihestu jendaurrean ezagutaraztea; baina pertsona juridikoa bada, ez da ezinbestekoa haren legezko ordezkariaren datu guztiak ezagutzea.

Ondorio horietarako, sinatzen den unean egiaztatu behar da sinatzaileen nortasuna, baina, ondoren, ez da beharrezkoa horren berri izatea, esleipendun ez diren gainerako lizitatuzaileek edo prozeduran parte hartu ez duten hirugarrenek beren eskubideak baliatu ahal izan ditzaten.



Horregatik guztiagatik eta laburpen gisa, ulertzen da, sinatutako dokumentuei dagokienez, SPKLk aipatzen duenean sinatutako dokumentuen publikitatea, ez dela eskatzen ari nahitaez argitaratu behar izatea ordezkarien izen-abizenak eta NANA. Nahikoa izango da informazio hori kontratazio-espeditentean jasota geratzea.

Hirugarrena.- Enplegatu publikoen informazioa argitaratzeari buruz.

Datuen babesaren ikuspegitik, bereziki babestutako datuak ez direnez, horien publikitatea haztatu behar da, kontuan hartuta datu horiek zabaltzean egon litekeen interes publikoa eta datu pertsonalen titularren eskubideak. Bestela esanda, bi eskubideak orekatu behar dira: datu pertsonalak babesteko eskubidea, eta lizitazioan parte hartu duenari buruzko informaziorako eskubidea —bai dokumentazio jakin bat prestatzeko, edo kontratazio-mahaiari jarduteko—.

Beraz, enplegatu publikoa identifikatzea edo ez identifikatzea parte hartu duena ezagutzera behartzen duen araudi zehatzaren arabera izango da.

Aurreko alderdiekin gertatzen den bezala, SPKLk 63.3.e) artikuluan adierazten du gutxienez argitaratu beharko direla kontratazio-mahaiaren akta guztiak, esleipen-prozedurari buruzkoak, edo, mahaiari jarduten ez badu, dagokion kontratazio-zerbitzuaren edo -organoaren ebazpenak, eskaintza bakoitzaren balio-judizio bidez kuantifika daitezkeen esleipen-irizpideen balorazio-txostena, hala badagokio, anormaltasun-presuntzioan sartuta dauden eskaintzei —SPKLren 149.4 artikuluan aipatutakoak— buruzko txostenak, eta, nolana ere, kontratua esleitzeko ebazpena.

Era berean, 63.5 artikuluan adierazten denez, hauek ere argitaratu beharko dira: deuseztaturiko prozedurak, kontratazio-organoei laguntzen dieten kontratazio-mahaiaren osaera, eta balio-judizio baten arabera diren adjudikazio-irizpideak aplikatzeko adituen batzordeetako edo erakunde tekniko espezializatuak diren kideen hautaketa, horiek beharrezkoak diren prozeduretan.

Beraz, SPKLren arabera, kontratazioaren kudeaketan zuzenean parte hartzen duten pertsonen datuak jakinarazteaz gain, dokumentu askotan ager daiteke horiek egiten dituzten langileen identitatea.

Kontratazio-mahaiari osatzen dituzten pertsonen dagokienez, kontratu bakoitza esleitzeko modu espezifikoan egin daiteke izendapena, kontratazio-organoen agindu edo ebazpenaren bidez. Izendapena modu iraunkorrean egiten denean, edo mahaiari kontratu askotarako eginkizunak esleitzen bazaizkio, sail bakoitzak kontratazioaren arloan eskumena duen saileko titularrekin eta dagokion saileko titularrekin batera agindu bidez arautuko du zein izango diren kontratazio kide. Beraz, dagoeneko zehaztuta dago nor parte hartu beharko duen zeregin horretan, eta ezin da eztabaidatu nor bere gain hartu behar dituen erantzukizun jakin batzuk herritarrei begira. Auzia da zehaztea ea enplegatu publikoaren karguarekin batera haren izen-abizenak eta bestelako datu pertsonalak ere adierazi behar diren edo ez.

Gure ustez, kasu horietan NANA argitaratzea ez litzateke datuen minimizazioaren printzipioarekin bat etorriko. Gure ustez, aldiz, garrantzitsua da parte hartzen duten pertsona zehatzak identifikatzea, karguaren edo esleituta



dituzten eginkizunen arabera, izen-abizenen arabera; eta, horrekin batera, kontratazio-organoaren zerbitzura dagoen pertsonaren batekin harremanetan jartzeko datu batzuk gutxienez eman behar dira (lanpostuaren telefonoa, lanpostuaren helbide elektronikoa, egoitza sozialaren helbidea), alegazioak egiteko edo informazioa eskatzeko —ez dezagun ahaztu lizitatzailleek informazio gehigarria eska dezaketela eskaintzak aurkezteko epea amaitu baino lehen (SPKL, 138.3 artikulua)—.

Gainera, gogoratu behar dugu gutun-azalen irekiera jendaurrekoa dela eta derrigorrezkoa dela quoruma egotea, balio osoz eratu ahal izateko. Existitzen dela egiaztatzeko modu bakarra nork joan behar duen jakitea da.

Identifikazio hori, ordea, ez da hain garrantzitsua, baldin eta identifikatu behar dena ez bada kontratazio-mahaiko kide bat, baizik eta espedientearen parte diren gainerako agiriak egin dituzten teknikariak —kontratazio-organoaren erabakiak sostengatzeko erabiltzen dira agiriok—, azken batez, hartzen diren erabakien erantzukizuna daukatenak baitira.

Identitateak jendaurrean jartzeko garaian, kontratazio-mahaietako kideak eta euskarri den dokumentazioa sinatzen dutenak bereizteko arrazoia da kontratazio-mahaian hartutako erabakien bidez ondorio juridiko oso garrantzitsuak gertatzen direla lizitatzailleentzat, hala nola hautagaitzak edo lizitatzailleak onartzea edo ez onartzea, edo eskaintzak onartzea edo baztertzea, besteak beste. Erabaki horiek, askotan, berehala errekurri daitezke, oztopo direlako prozeduran jarraitzeko orduan —baztertuz gero, adibidez— edo ondoren —esaterako, eskaintzen balorazioan desadostasunak badaude—. Azken finean, kontratazio-mahaia balorazio-epaimahai bati dagozkion eginkizunak betetzen ditu, besteak beste.

Azkenik, kontratazio-mahaian parte hartzen duten pertsonen izen-abizenekin batera, kontratuaren arduraduna nor den ere adierazi beharko litzateke —erakunde kontratatzailetik kanpoko ere izan daiteke—. Pertsona horri dagokio kontratuaren betearazpena ikuskatzea, erabakiak hartzea eta beharrezko jarraibideak ematea kontratatutako prestazioa behar bezala gauzatzen dela ziurtatzeko, kontratazio-organoek esleitzen dizkieten eskumenen esparruan (SPKL, 62. artikulua).

Nolanahi ere, oro har informazio hori guztia argitaratu behar bada ere, argitara eman baino lehen, horren berri eman behar zaie pertsona horiei, inguruabar bereziengatik datu horiek argitaratzea ez dela komeni alegatu ahal izan dezaten. Hala, auditoretza-txostenaren 5. jarraibide orokorrean Datuak Babesteko Kataluniako Agintaritzak (APDCAT) dio kasu berezi batzuetan ez dela gomendagarria datuak argitara ematea; adibidez, genero-indarkeriaren biktimen edo lekuko babestuen kasuan.

Azkenik, Gardentasunerako eta Gobernu Onerako Kontseiluaren uztailaren 23ko 4/2015 interpretazio-irizpidea kontuan izanda, argitara daitezkeen dokumentuak asko direnez, ezin dugu adierazi gabe utzi errubrika zabaltzeak arrisku-egoera sor dezakeela, dokumentura sartzen den edonork hura erreproduzitu ahal duelako. Horregatik, duela urte batzuetatik hona jardunbide egokitzat jotzen da sinadura guztiak ezabatzea, betiere sinadura horien ordeztu aipamenean bat egiten bada jatorrizko agiria benetan sinatuta dagoela adierazteko.



LAUGARRENA.- Datu pertsonalen tratamenduan eragina duten beste kontsiderazio batzuk.

Aurretik adierazitakoaz gain, uste da garrantzitsua dela bilaketa-motorren kontratuetako informazioa desindexatzea (Google, adibidez), araudiak ez baitu babesten datu pertsonalak bilaketa orokor baten bidez atzitu ahal izatea bilatzaile horietan –lizitatzailleak, esleipendunak, kontratistak edo langile publikoak bilatzea–. Aitzitik, bermatu nahi da prozedura jakin batean interesa duten pertsonak jakin ahal izatea kontratazio-mahaia nork osatu duen, dokumentazio jakin bat nork prestatu duen edo esleipendunak nor izan diren.

Era berean, gutun-azalak irekitzen ari direnean, lizitatzailleek ikusten duten pantailan ez litzateke jaso behar kontratazio-mahaia osatzen duten pertsonen NANA.

Azkenik, adierazi behar da egindako jarraibideak errespetatu behar direla dokumentua elektronikoki sinatu denean ere. Hau da, ezin da NAN zenbakia eskuratu kontratatzailearen profiletan elektronikoki sinatutako dokumentuetan.

BOSGARRENA.- Administrazio-klausula zehatzen agirien eredu tipoen II.0, VII.1 eta VII.2 eranskinak betetzeari buruz

Administrazio-klausula zehatzen agirien eredu tipoen II.0, VII.1 eta VII.2 eranskinak betetzeari dagokionez, I. eranskinean eranskin horiei buruzko jarraibideak jaso dira.

SEIGARRENA.- Kontratu txikiei buruz

Kontratu txikiei dagokienez, kontuan hartu behar dira II.1 Eranskina —kontratistari datuak babesteko informazioa emateko eman beharreko informazioari buruzkoa— eta II.2 Eranskina —kontratua sustatzen duen zuzendaritzak eta kontratistak sinatu behar duten konfidentziasun- eta datuen tratamendu-kontratuari buruzkoa, kontratu txikia gauzatzeak datuen tratamendua eskatzen duen kasuetan—.

Zazpigarrena.- Derrigortasuna

Jarraibide hau nahitaezkoa izango da Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoa osatzen duten erakundeetako kontratazio-organo guztientzat, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bateginaren 7.4 artikulua dio zein den sektore publikoa.



I. ERANSKINA

DATUAK BABESTEKO ERANSKINEI BURUZKO JARRAIBIDEAK

Administrazio-klausula partikularren pleguan deklaratzeko den informazioak, bai eta, hala badagokio, agindu teknikoan agirian jasotzen denak ere, bat etorri beharko dute Tratamendu Jardueren Erregistroan (TJE) ezarritakoarekin. Horregatik, edozein lizitazio egin aurretik, tratamendu-jarduera aipatutako erregistroan erregistratuta eduki beharko da.

Hemen kontsulta dezakezue: <https://www.euskadi.eus/registro-de-actividades-de-tratamiento-rat/web01-aprat/es/>

II.0 ERANSKINA - Datu pertsonalak.

Eranskinetan datu pertsonalak sartzen dira. Datu horiek hirugarrenei jakinaraztea saihesteko, NANA eranskin honetan bakarrik sartuko da.

Hala, lizitatuak pertsona fisikoa (autonomoa) izango balitz, ez litzateke beharrezkoa izango haren NANA agertzea, adibidez, eskaintza jendaurrean irekitzen denean eta Irekiaren bidez ematen denean argitara.

Oharra: Datuak babesteko araudia aplikagarria da identifikatutako edo identifika daitekeen **pertsona fisiko** baten identitatea ezagutzea ahalbidetzen duten datu eta informazio guztietan. **Pertsona juridiko** bati buruzko datuak (izen soziala, IFZ, helbidea, etab.) ez dira datu pertsonaltzat hartzen, eta, beraz, ez zaie aplikatuko Datuak Babesteko 2016/679 (EB) Erregelamendu Orokorrean xedatutakoa, ez eta Datu Pertsonalak Babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan xedatutakoa ere.

Ondorio horietarako, "Pertsona fisiko identifikagarria" da zuzenean edo zeharka identifikatzailearen bidez identifika daitekeena, hala nola, izena, identifikazio-zenbakia, lokalizazio-datuak, on lineko identifikatzailea edo pertsona horren identitate fisiko, fisiologiko, genetiko, psikiko, ekonomiko, kultural edo sozialaren elementu bat edo batzuk (Datuak Babesteko 2016/679 (EB) Erregelamendu Orokorren 4. artikulua).

VII. ERANSKINA 1. - Datu pertsonalen babesari buruzko informazio gehigarria

Eranskin hau betetik entregatu behar da beti. Eranskin honek lizitatuak datu pertsonalen babesari buruzko oinarritzko informazioa jasotzen du, eta Administrazio-klausula partikularren agirian sartuko dugu, guztiek horren berri izan dezaten.

"Tratamenduaren eta harremanetarako datuen organo arduraduna" nor den bakarrik bete behar da. Oro har, datuak beti berdinak izango dira (Zerbitzu Zuzendaritzarenak, KKKrenak ...).

Hau da —modu informalean adierazita— arduraduna: lizitatuak datuak eskatzen dituen eta erabakiko duena lizitatu ahal izateko zer aurkeztu behar duten. Ez da kontratazio-aplikazioaren titularra, nahiz eta datuak bertan ostatu.

Informazio bakar horren arduraduna da kontratazio-organoa, beste zuzendaritza batzuetarako kontratuak kudeatzen dituen.

VII.2 ERANSKINA - Datu pertsonalak tratatzeko mandatua

Eranskin hau datu pertsonalak tratatuko badira bakarrik bete behar da. Gainerako kasuetan, ez da beharrezkoa izango.

Zuzendaritza sustatzaileak eta kontratistak sinatzen dute. Arduraduna zuzendaritza sustatzailea da, tratamenduaren helburuak eta bitartekoak zehazten dituelako. Bestela esanda, tratatuko diren datuak dituen da, eta hark ematen dizkio kontratistari —edo kontratistak zer datu bildu behar dituen erabaki dezakeenari—. Datu horiek guztiak Tratamenduaren Jardueren Erregistrotik (TJE) lortu behar dira. Honako hauek deskribatu behar dira:

1. Tratamendu-eragiketak eta kolektibo interesdunak

Izena	Deskripzioa	Adibideak
Biltzea/Erregistratzea	Banako edo kolektibo bati edo batzuei buruzko datuak edo datu pertsonalen multzoak biltzea edo erregistratzea. Informazio-sistema batean datu pertsonalak sartzea, biltegitratzeko, edo datu horiek euskarri ez-informatiko batean idaztea (paperean, adibidez).	Datuak formulario baten bidez jasotzea. Zaintza-kameretako irudiak denbora errealean ikustea. Datuak informazio-sistema batean jasotzea eta biltegitratzea. Datuak online edo paperean jaso ahal izan dira.
Sailkatzea/egituratzea	Datu pertsonalak antolatzea: datu pertsonalak sailkatzea edo multzokatzea, normalean helburu bat lortzeko erabilgarriagoak izan daitezten. Datu pertsonalak egituratzea: datuak eta horien arteko erlazioak aldatzea, erraz eskuratzeko eta prozesatzeko.	Pertsona fisikoak sailkatzea adin-taldeen arabera. Datuak datu-base batean gordetzea edo datuei etiketak gehitzea. Jatorrizkoetatik eratorritako datuak lortzea, datuak gehitzea, neurketa-unitateak bateratzea, etab.
Gordetzea / Segurtasun-kopia	Datu pertsonalak gordetzea: datuak denboran irauteko moduan	Datuak mantentzea legezko betebeharra betetzeko. Dirulaguntzen datuak



	biltegiatzea, eta, beharrezkoa bada, formatu-aldaketak egitea. Informazio-sistemen segurtasun-kopiak.	artxibatzea erreklamazioak egin daitezkeen epean. Informazio-sistemen babeskopiak egitea.
Aldatzea	Datu pertsonalak aldatzea: datuak aldatzea.	Tratatzen diren datuak eraldatzea edo aldatzea. Pertsona baten egoera zibila aldatzea.
Ateratzea	Datu pertsonalak ateratzea: beste iturri batzuetatik datuak lortzea.	Sistemaz kanpoko web zerbitzu baten edo datu-base baten datuak biltzea. Administrazioen arteko elkarreragingarritasun-zerbitzuen bidez lortutako datu pertsonalak.
Kontsultatzea	Datu pertsonalak kontsultatzea: datu pertsonalak lortzea irakurtzeko. Datu pertsonalak erkatzea: datuak beste batzuekin alderatzea, datu horiek jatorrizkoen kopiak direla frogatuta.	Enplegatu baten datuak kontsultatzea. Unibertsitate-titulua duen dokumentu eskaneatua paperean dagoen jatorrizko tituluarekin erkatzea.
Komunikatzea/Transmititzea	Datu pertsonalak komunikatzea: datuak transmititzea, hedatzea edo hirugarrenei datu pertsonaletarako sarbidea ematen dien beste edozein modu baliatzea.	Elkarreragingarritasun-zerbitzuen bidez beste administrazio batzuetara bidalitako datuak. Aplikazioen edo zerbitzuen arteko datu-trukea. Datuak hirugarren herrialde batera transferitzea edo datuak beste enpresa edo erakunde bati jakinaraztea.
Mugatzea	Datu pertsonalak mugatzea: gordetako datuak markatzea, etorkizunean haien erabilera mugatzeko.	Datuak ezin tratatzeko moduan markatzea, baina erreklamazio bat egiteko datuetara sartzea ahalbidetzea.



Ezabatzea/Ezeztatzea/Ahazteko eskubidea	Datu pertsonalak ezabatzea: datuak ezabatzea edo desagerraraztea. Datuen desindexazioa: buletin eta argitalpen ofizialen kasuetan, datuak ezin dira ezabatu, baina desindexa daitezke, Interneteko bilatzaileek aurkitu ez ditzaten.	Datu pertsonalak ezabatzea: Eskubideak baliatuta eskaera egin duen norbaiten datu pertsonalak ezabatu behar direnean. Buletinaren webguneko datu pertsonalak desindexatzea, "norobots" zuzentaraua erabiliz
Kopiak suntsitzea	Paperezko kopiak edo segurtasun-kopiak ezabatzea, bai zaharkituta daudelako, bai segurtasun-kopien sistema aldatu delako.	Datuak deuseztatzea, papera suntsitzeko gailuaren bidez, edo datuak fisikoki ezabatzea, "delete" bidez. Disko gogorrak edo segurtasun-kopiak egiteko erabilitako euskarriak fisikoki ezabatzea.
Segurtasun-kopiak berreskuratzea	Segurtasun-kopietatik abiatuta, informazioa zaharberritzea.	Segurtasun-gorabehera baten ondorioz informazioa galdu ondoren, informazioa lehengoratztea

2. **Tratatzen diren datuen kategoriak** Esaterako, Izena, abizenak, NANA, helbidea, telefonoa, lanbide-jarduera...
3. **Kontratua amaitutakoan zer egin behar duten datuekin:** itzuli, kendu ...
4. **Hartu beharreko segurtasun-neurriak:** Administrazio Elektronikoaren esparruan Segurtasun Eskema Nazionala arautzen duen urtarrilaren 8ko 3/2010 Errege Dekretuan aurreikusitako segurtasun-neurrien arabera aplikatuko dira datuen tratamenduetan. "*CCN-STIC 803 IKTen segurtasun-gida*" dokumentuan, 15. orrialdean eta hurrengoetan, 2.2 puntuan, datu pertsonalak dituen informazio moten eta maila egokiaren (txikia-ertainahandia) arabera aplikatu beharreko irizpideak zehazten dira.

Aukeran, zein neurri diren egokiak zehaztu daiteke.

INFORMAZIO HORI GUZTIA ZUZENDARITZA SUSTATZAILEAK EMAN BEHAR DU, ETA TRATAMENDUAREN JARDUEREN ERREGISTROAN (TJE) JASO BEHAR DA.

Kontratua gauzatzen den bitartean esleipendunak hirugarrenen datu pertsonalak eskuratu ahal izango dituen ala ez zehaztu beharko du zuzendaritza sustatzaileak, kasu zehatz bakoitzerako.

Datuak babesteko araudiari buruzko gainerako informazioa administrazio-klausula partikularren agiriko klausula orokorretan jasotzen da, eta horregatik ez da eranskin honetan berriz jasotzen.



II.1 ERANSKINA KONTRATU TXIKIAK

(kontratu guztietan, beteta entregatuko zaie eskaintza eskatzen zaien pertsoneri, datuen babesari buruzko informazioa emateko)

1. **Tratamenduaren organo arduraduna eta harremanetarako datuak:** Dagokion kontratazio-organoa (posta-helbidea:; telefono-zk.:).
2. **Datuak babesteko ordezkaria eta harremanetarako datuak:** Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren Datuak Babesteko ordezkaria. Helbidea: Donostia kalea 1, 01010 Gasteiz. Telefonoa: 945018680. Web-orria: www.euskadi.eus/proteccion-datos
3. **Tratamenduaren helburua:** kontratazio publikoaren prozeduraren kudeaketa, fase guztietan, betearazpena, aldaketak, luzapenak, epe- edo prezio-aldaketak, azken zenbatekoa eta iraungipena barne, baita adjudikazio-prozeduran atzera egiteko erabakiak, kontratua ez adjudikatzen edo ez egiteko erabakiak eta kontratistari egotzi ahal zaizkion eta kontratua suntsiaraztea eragin duten gorabeherak ere.
4. **Kontserbazio-epea:** zein helburutarako jaso diren eta hori betetzeko beharrezkoa den denbora.
5. **Legitimazioa:** tratamendua beharrezkoa da interesduna parte den kontratu bat betearazteko eta, era berean, hauetan xedatutakoa betetzeko: Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legea (6.1 artikulua b) eta c) apartatuak) eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko (EB) 2016/679 Erregelamendua, Datu pertsonalen tratamenduari dagokionez pertsona fisikoen babesari eta datu horien zirkulazio askeari buruzko arauak ezartzen dituen eta 95/46/EE Zuzentaraua indargabetzen duena.
6. **Hartzaileak:** Interes legitimoa dutenei eta Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiari eman ahal izango zaizkie datu pertsonalak.
7. **Eskubideak erabiltzea:** Datu pertsonalak jasotzen zaizkien pertsonen honako eskubide hauek baliatu ahal izango dituzte: datuetan sartzea, horiek zuzentzea, ezabatzea (ahazteko eskubidea), mugatzea, aurka egitea eta tratamendu automatizaturik ez izatea.
8. **Datu pertsonalen babesari buruzko informazio xehea**, hemen:
 - a) Gure web orria (www.euskadi.eus/datu-babesa)
 - b) Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra (EB) 2016/679 (<https://eur-lex.europa.eu/legal-content/ES/TXT/HTML/?uri=CELEX:32016R0679&from=ES>).
 - c) 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5koa, Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzekoa.
<https://www.boe.es/eli/es/lo/2018/12/05/3/con>

Jasotako datu pertsonalak nori buruzkoak diren, pertsona horrek aipatu diren eskubideak egikaritu ahal izango ditu tratamenduaren organo arduradunaren aurrean, [eskubideen egikaritzaren](#) prozeduraren bidez.

(<https://www.euskadi.eus/servicios/10842>)

Era berean, Datuak Babesteko Euskal Bulegoan edozein erreklamazio egiteko ahalmena du, edo Datuak Babesteko ordezkariari [aurretiazko erreklamazio bat](#) aurkez diezaioke. (<https://www.euskadi.eus/servicios/10843>)



II.2 ERANSKINA KONTRATU TXIKIAK

(Zuzendaritza sustatzaileak eta kontratistak sinatu beharrekoa)

KONFIDENTZIALTASUN- ETA DATUEN TRATAMENDU-KONTRATUA

Alde batetik, dagokion zuzendaritza: (sozietatearen helbidea:PK: IFZ:.....), datuak TRATATZEKO ARDURA DUEN ORGANOA den aldetik, behean sinatzen duenak ordezkatuta, honako zuzendaritza honetako zuzendaria baita:.....

Eta, bestetik, (sozietatearen helbidea: IFZ:.....) TRATAMENDUAREN ARDURADUNA den aldetik, behean sinatzen duenak ordezkatuta, honako KARGU/ARDURA hau baitu:.....

Tratamenduaren izena	Informazio hori Tratamenduaren Jardueren Erregistroan (TJE) lortuko da
Helburua	Informazio hori Tratamenduaren Jardueren Erregistroan (TJE) lortuko da
Interesdun kolektiboak	Hemen adierazi behar dira tratatuko direnei buruzko datuak.
Tratamenduaren datu pertsonal hauetarako irispidea eskuratu ahal izango da	Hemen, ukitutako informazioaren identifikazioa gehitu behar da. Adibideak: izenak, telefonoak, helbide elektronikoak, NANA, helbidea, sexua, nazionalitatea, jaioteguna...
Kontratu honen iraupena	Markatu dagokiona
Datu pertsonalekin zer egin kontratua amaitzean	<p>Aukerak:</p> <p>a) Tratamenduaren organo arduradunari itzuli datu pertsonalak —eta, hala badagokio, datu pertsonalak dituzten euskarriak—, prestazioa ematen amaitu ostean. Itzultzeaz gain, kontratistak erabiltzen dituen ekipo informatikoetan dauden datu pertsonal guztiak ezabatu beharko dira. Hala ere, kontratistak kopia bat kontserbatu ahal izango du, datu pertsonalak behar bezala blokeatuta, kontratuaren betearazpenetik erantzukizunak erator litezkeen bitartean.</p> <p>b) Datu pertsonalak suntsitu, prestazioa ematen amaitu ostean. Suntsitu ondoren, kontratistak idatziz ziurtatu beharko du suntsitu egin dituela, eta tratamenduaren organo arduradunari eman beharko dio ziurtagiria. Hala ere, kontratistak kopia bat kontserbatu ahal izango du, datu pertsonalak behar bezala blokeatuta, kontratuaren betearazpenetik erantzukizunak erator litezkeen bitartean.</p>
Azpikontratazioa	Aukerak:



a) Ez azpikontratatzea kontratu honen xedea osatzen duten eta datu pertsonalen tratamendua dakarten prestazioak; salbuespen dira arduradunaren zerbitzuen funtzionamendu normalerako beharrezkoak diren zerbitzu osagarriak.

b) Azpikontratazioa baimentzen da. Hala ere, aldez aurretik eta idatziz jakinarazi beharko zaio hori organo arduradunari, honako aurrerapen-aldiarekin:.....; azpikontratatu nahi diren tratamenduak adierazi behar dira, eta argi eta garbi identifikatu behar dira azpikontratista eta haren harremanetarako datuak. Azpikontratazioa egin ahal izango da organo arduradunak ez badu aurka egiten ezarritako epean.

Azpikontratista ere tratamenduaren arduraduna da, eta behartuta dago dokumentu honetan tratamenduaren arduradunarentzat ezarritako betebeharrak eta organo arduradunak emandako jarraibideak betetzera.

**Nazioarteko
transferentziak**

Aipatu, baldin badaude.



Alderdien eginbeharrak eta betebeharrak¹

A. Tratamenduaren arduradunaren betebeharrak

Tratamenduaren arduradunak eta bere langile guztiek betebeharrak hauek izango dituzte:

1. Tratatu beharreko datu pertsonalak edo sartzeko jasotzen dituenak mandatu honen xederako bakarrik erabiltzea. Inola ere ezin izango ditu datuak bere helburuetarako erabili.
2. Datuak tratamenduaren organo arduradunak emandako jarraibideen arabera tratatuko dira, eta ezingo dira aplikatu edo erabili beste ezein helburuetarako, ezta beste inoren esku jarri ere.
3. Isilpean gordetzea eskuratzen dituen datu pertsonalak —datu horiek gordetzeko betebeharrak bere horretan iraungo du tratamenduaren ardura duen erakundearekin harremanak amaitu ostean ere—.
4. Beharrezkoak diren neurri teknikoak eta antolakuntzakoak ezartzea datu pertsonalen segurtasuna eta konfidentzialtasuna, erabilgarritasuna eta osotasuna bermatzeko eta datu horiek baimenik gabe aldatzea, galtzea, tratatzea edo eskuratzea saihesteko. Gainera, hala badagokio, datu pertsonalak seudonimizatu eta zifratu beharko ditu, eta datu pertsonalen eskuragarritasuna eta sarbidea azkar berrezarri, gertakari fisiko edo teknikoren bat gertatuz gero. Era berean, tratamenduaren segurtasuna bermatzeko ezarri diren neurri tekniko eta antolakuntzakoaren eraginkortasuna aldi-aldi egiaztatu, ebaluatu eta balioztatu beharko du.
5. Bermatzea datu pertsonalak tratatzeko baimena duten pertsonak berariaz eta idatziz hartzen dutela konfidentzialtasuna errespetatzeko konpromisoa. Eta, gainera, organo arduradunaren esku uztea goragoko hori egiaztatzeko dokumentazioa.
6. Datu pertsonalak tratatzeko baimena duten pertsonen datu pertsonalak babesteko behar den prestakuntza bermatzea.
7. Tratamenduaren ardura duen organoari laguntzea datuen babesari buruzko araudian aurreikusitako interesdunen eskubideak baliatzeari erantzuten. Ukitutako pertsonak tratamendu-eragilearen aurrean baliatzen dituztenean eskubideak, berehala jakinarazi beharko diote tratamenduaren ardura duen organoari.
8. Hala badagokio, segurtasun-urraketak bidegabeko atzerapenik gabe jakinaraztea, eta, nolana ere, 72 orduko gehieneko epea amaitu baino lehen. (Informazioa gordeta zeukaten gailuen galera edo lapurreta...)
9. Tratamenduaren organo arduradunaren esku jartzea betebeharrak betetzen direla frogatzeko eta dagozkion auditoretzak edo ikuskapenak egiteko behar duen informazio guztia.

Tratamendu-eragileak datu horiek beste xede baterako erabiltzen baditu, edo beste baten esku uzten baditu, edo dokumentu honetan ezarritako baldintzak betetzen ez baditu, hura ere tratamenduaren arduraduntzat joko da, eta bera izango da egon litezkeen arau-hausteen erantzule.

¹ Zuzendaritza sustatzaileak egokitzen dituen gai guztiak gehitu ahal izango dira, kontratu handietan jasotako tratamendu-jarduerei buruzko taula barne, beharrezkotzat joz gero.

B. Tratamenduaren ardura duen organoaren betebeharrak

Tratamenduaren arduraduna den organoari honako hauek dagozkio:

1. Kontratu honetan aipatzen diren datuak arduradunari ematea.
2. Aldez aurretik eta tratamendu osoan zaintzea Datuak Babesteko 2016/679 (EB) Erregelamendu Orokorra eta Datu pertsonalak babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa betetzen direla.
3. Tratamendua gainbegiratzea.

.....(e)n, 20...(e)ko(a)ren(e)(a)n.

Tratamenduaren ardura duen organoaren aldetik:.....
Kontratistaren aldetik:.....